


# Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 41. zenb. 1997ko abendua. 200 pztla.



Euskaldunon Egunkariak utzitako argazkia / Olalde.



## Jon Maia Txapelketa Nagusiko Finalean

### Elkarrizketa

- **Tito Mancilla**, Orioko entrenatzaile berria.

### Erreportaia

- **Laia**, euskal produktuen museoa.



Zenbaki honekin batera, Zumaiaren 650. urteurrena ospatzeko argitalpen berezia.

200 pta


200 pta



Zumaiako Fototekak  
utzitako argazkia



*Bai ba! Lehen ere egongo ez zen ba musika banda bat herrian! Egia esan ez dakigu seguru argazki hau noizkoa den eta ezta Zumaiako Musika bandarena den ere, baina itxuraz behintzat hala dirudi banderan dagoen Zumaiako ikurrari kasu egiten badiogu. Ez zitzaien, ez, instrumenturik falta: saxofoia, bonboa, txindata, tronpetak eta zuzendaria ere bai. Konpletoa benetan musikari kuadrila hau.*



Argitarapen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

**kutxa** fundazioa  
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

Aldizkari honek Eusko  
Jaurlaritzako Kultura Sailaren  
dirulaguntza jaso du



ZUMAIAKO UDALAK  
lagundutako aldizkaria





**BALEIKE**

**HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea

**ZUMAIAKO**

**GAZTE**

**BATZORDEA**

Iantaldea

**Iratxe Aizpurua**

**Esther Martinez**

**Eneko Dorronsoro**

**Xabier Azkue**

**Igor Uranga**

**Josu Waliño**

**Gorka Zabaleta**

**Juan Luis Romatet**

**Kolaboratzaileak**

**Ostarrena Zine Klub taldea,**

**Ingurugiro tailer eskola,**

**Dani Carballo, Ismael Manterola,**

**Juan Luis Blanco eta bere tuba,**

**Miriam Romatet, Xabi eta Egitz,**

**Ainara eta konpainia,**

**Amaia Benito, Jon Manzísidor,**

**Josu eta Arantxa,**

**Igone eta Nerea, e.a.**

publizitatea

861056 tel.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 1.000 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Ze Berri?**  
**Kalparsoro auzia ireki liteke**  
...5. or.



**Izerdi patsetan**  
**Karatea,**  
**fama txarra duen kirola**  
...24. or.

**Aita Mari zineko arduradunari:**

Ansoalde jauna:

Agian pentsatuko duzu Aita Mari zinera joaten den jendeari ez zaiola ikusten ari den filmearekin pentsatzea gustatzen. Hori da burura etortzen zaidan konklusio logiko bakarra, uda honetatik hitzaurre hau idazten dudan egunerarte (Azaroak 16), zinean ikusteko aukera izan dudan filmeen kalitate mailaz ohartzen banaiz: *Con Air*, *Volcano*, *Anaconda*, *El Mundo Perdido*... Horiek al dira gaur egun egiten diren filmerik onenak? Takilleroak izateaz aparte, beste zerbait ba al dute? Non gelditu dira gidoi inteligenteak? Ez al zara konturatzen jendeak beste zerbait nahi duela; hemen ikusteko aukera ez dugun filmeak ikustera inguruko herrietara joaten gara? Ez al zara ohartzen zine-forumeko filmeak ikustera gero eta jende gehiago joaten dela? Zinea zer den ba al dakizu? Konturatzen naiz zuretzako gaur egungo zinea Steven Seagalena edo Van Dammerena dela, baina askok nahiago dugu Woody Allenen komedia bat ikusi edo Kenneth Branaghen *Hamlet* monumentalean murgildu. Egia esan, batzuei ahaztu zaigu zer den asteburu batean Aita Mariko eserlekuetan eseritzea. Ansoalde jauna, mesedez, jar ezazu zine ona; komedia, drama, poliziakoa, berdin zaigu, baina inteligentzia minimo bat eduki dezala. Ziur nago jendeak eskertuko dizula.

**Oharra:** Esaiozu proiektoreaz arduratzen den zure langileari filmea eskaini aurretik pelikula enfokatu (minutu askotan desenfokatu egon izan da) eta enkuadratu egin behar duela (pantailaren goikaldean mikrofonoak agertzearen arrazoia).



**Juan Luis Romatet**

**PREMIAZKO TELEFONOAK:**



Kultur Etxea .....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia....	86 02 48
Alkoholikoen senideak...47	54 03	Sexu-informazioa.....	32 04 44





**LUIS MARI  
AIZPURUA**

## Gabon korua

1945eko azaroaren 24an izan zen. Luistarren kongregazioko gazte talde bat elkartu eta, Kepa Urangaren (†) zuzendaritzapean, kalera irten ziren Zumaiian eta Gipuzkoa osoan kaleetan zehar kantatzera, helburu bikoitz batekin: batetik, hain berezia den garai hori girotzeko, baina batez ere, tuberkulosi gaixotasuna zuten zumaiar gazte batzuentzako sos batzuk biltzeko, hauek Andazarraten baitzeuden garai bateko eritexean gaixo.

Urte batzuk igaro ondoren zuzendaritzan Carlos Gorostolak (†) hartu zuen erreleboa. Gero 50eko hamarkadan Juan Ignacio Mendia (†) apaiz zumaiarrak hartu zuen ardura hori, eta bera izan zen gaur egun oraindik hor jarraitzen duen ahots mistoetako korua ezarri zuena. Harrezkero ia bost orduko iraupena duen kalejira kantarian bildutako dirua administratzeaz Parrokiko Karitas arduratu zen, luistarren orde. Hurrena Jeronimo Egañak hartu zituen zuzendaritza lanak; Xanti Goikoetxeak ere egin zuen sartu-irten labor bat, baina batuta berriz ere Jeronimo Egañaren esku utzi zuen. Eta azkenik, dagoeneko hamalau urte inguru dira zuzendari Agustin Zubimendi dabilela.

Urrezko ezteiak 1994an ospatu zituen koru herrikoi honek, eta 50 gabon kanta baditu erreperatorioan, guztiak euskaraz abesten direnak, hain ezaguna den eta latinez abesten den "Adeste Fidelis" izan ezik. Behin bakarrik huts egin du koruak, 1970eko abenduaren 24ean, Burgosko Prozesua puri-purian zegoenean. Lau eta bost ahots mistoetara abestutako hamasei kantu izango dira datorren 24ko ibilbidean Zumaiako kale eta plazak alaituko dituztenak. Kalejira kantari honen helbururik nagusia ez den arren, alderdi ekonomikoa aipatu beharreko kontua da, Gabon eguneko arratsaldean milioi batetik gora erraz biltzen baita. Txalo bero bat merezi dute Gabon Koruko 130 partaideek eta zuzendariak, egun seinalatu horretan eskaintzen diguten kontzertu bikainagatik, bereziki Erribera kalean egiten den azken ibilbidean.

Belaunaldi honek eta datozenek mantendu beharrekoa tradizioa da hau, zalantzarik gabe Zumaiako historian urrezko orria osatzen baitu Gabon Koruak, eta urteak aurrera joan ahala garai berrietara egokitzen eta aldatzen asmatu duelako.



**ZUMAIAKO  
BERTSO ESKOLA**

## ANIMATU JON ANIMATZERA

*DOINUA: 7 puntukoren bat.*

**Hamalau jende ugari  
zortzi milatikan gora  
Donostiara joango gara  
bertso egarriz gustora  
lehenengo aldiz Zumaiako bat  
onenekin egongo da  
bertsozaleok gogora  
hau dela urrezko froga (bi)  
une politak izan zirela  
oroit dezagun gerora  
goazen Maiari txalo jotzera  
guztiok Belodromora (bi)**



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA,  
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

**AIZMAN-KOS S.L.**

SANEAMENDU ETA  
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta auzoa z/g Tel/Faxa:  
78 postalutxa 148124  
20740 IRAETA-ZESTOA

BELARDENDA  
**SIWA**



Esther Blanco  
OSTEOPATA-MASAJISTA  
Basadi 5-C behea  
Tlf: 143404 - 860012



# Kalparsoro auzia ireki liteke

**B**izkaiko Probintzi Entzutegiko Fiskaltzak Xabier Kalparsoro Txatok Indautxuko komisarian izan zuen egonaldia ikertzeko eskatu du, ziegatarako sarrera-serregistroan faltsutze bat egon zela jakin ostean

Azaroaren erdi aldera jakin zenez, Bilboko 8. Instrukzio Epaitegiak eta Entzutegiko Fiskaltzak duela gutxi izenik gabeko ohar bat jaso zuten, eta bertan Xabier Kalparsororekin zerikusia zuen faltsutze baten berri ematen zen.

Anonimo hori polizia batek idatzitakoa ote den susmatzen da, eta ohar horretan aipatzen denez, Kalparsororen sinadura faltsutu zuten, Txato ez baitzen momentu bakar batean ere ziega edo kalabozotan egon. Anonimoaren arabera beti ere 2. pisuko galdeketa gelan egon zen, eta bertatik amildu zen kalera.

## Froga eta guzti

Oharra bidali duen pertsona berak erregistro-akta erantsi zion ohar honi, une hartan lanean zeuden polizien izenak zehaztuz.

Honen berri izan ondoren, Fiskaltzak faltsutze hau ikertu eta alderdiak jakinaren gainean



Urteak aurrera joan arren, oraindik ere oso ilun daude auzi honetako zenbait puntu.

jartzeko agindu du. Kalparsororen senitartekoez jakin dutena azaldu digute: "abokatuak esan digunez litekeena da laster batean auzi hau berriz ere irekitzea, datu berri hauek direla medio". Baina egunak aurrera doaz eta ez da berririk izan. Dena den, senitartekoez auzi hau neurri batean argituko ote den itxaropena agertu dute.

## Badirudi orain aukera handia dagoela lehen artxibatutako auzi hau berriz ere irekitzeko

Gogoratu beharra dago Xabier Kalparsoro "Anuk" edo "Txato",

1993ko irailaren 23an atxilotu zutela, eta Indautxuko komisariatik igaro ondoren Basurtoko Ospitalera eraman zutela, koma egoeran, nola ez dakigularik 2. pisuko leihotik kalera amildu ondoren.

Harrezkero bi sumario ireki ziren. Batean, zenbait polizia auziperatu zituzten, eta delitutzat "imprudencia temeraria" leporatu zitzairen. Bestean, 8. Epaitegiak zenbait dilijentzia egin zituen, "legez kanpoko atxiloketa" izan zitekeena ikertzeko, baina epaileak auzia artxibatzea erabaki zuen.

Orain, datu hauek jakin ondoren, badirudi aukera handia dagoela lehen artxibatutako auzi hau berriz ere irekitzeko. ■

**INPERNUPE ELKARTEA**

Erribera kalea    Telefonoa: 861523

**ZUMAIA**

**ekin**  
ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
INSTALAZIO MUSIKALAK  
AKUMULADOREAK  
ALARMAK  
ANTENAK  
PORTERD AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Tell. - Fax: 14 30 97  
TAILERRA: Larritxo, 10 behe 1º - Tell: 14 34 74  
20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

**SUKALDEKO ALTZARIAK**

**DORNUTEGI**  
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe  
Telefonoa: 862051

20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)



## Zumaiak bi mediku saharaiuen formazioa diruz lagunduko du

Jakina da azken urteotan Zumaiak Saharar herrialdearekin elkarlaguntza egitasmo bat duela martxan. Bertako herrialde batekin senideturik dago eta urtean zehar kanpaina ezberdinak zabaltzen ditu saharauiei laguntzeko, era batera edo bestera.

Oraingo honetan Zarautz, Zestoa eta Urola Kosta Udal Elkartearekin batera Zumaiak beste egitasmo batean parte hartuko du. Itxura denez, saharaiuen behar handienetako bat medikuntza arloan kokatzen da, bereziki hango sendagileak formatzea dute helburu nagusienetako bat.

Arrazoi hau dela-eta, aipatutako herriek eta Udal Elkarteak laguntza plan bat jarri nahi dute Saharako bi sendagilek medikuntzako espezialitatearen formazioa Euskal Herrian egin dezaten.

Guztira, ia 2 milio t'erdi pezeta beharko dira ekimen hau gauzatu ahal izateko. Urola Kosta Mankomunitateak 750 mila pezeta jarriko ditu, Zarauzko Udalak 700 mila pezeta, Zestoakoak 400 mila eta esan bezala, Zumaiako Udalak 600 mila pezeta baino gehiago ezarriko ditu plangintza honetan.

Bi beka hauek urtebeteko iraupena izango du eta datorren urtean jarriko da martxan.

Dirulaguntza guzti hau «Asociación de Amigos de R.A.S.D.»



Datorren urte osoan jasoko dute formazioa medikuok.

(República Árabe Saharaui Democrática) elkartearen bitartez bideratuko da.

Laguntza hauek amaitzean, eta saharaiuek Euskal Herrian duten ordezkariaren esanetan, Madrilgo

Gobernuari beste beka batzuk eskatzeko asmoa dute. Modu honetan mediku saharaiuek formazio hori erabat osatuko lukete, eta horrela herrikideei laguntzeko prest egongo lirateke.



**EKIMEN IBILTARIA**, presoak Euskal Herriratzearen alde Senideak taldeak antolatutakoa, Zumaiara ere iritsi zen hil honen 4an. Beste zenbait talderenaz gain Parrokiaren eta Ricardo Peña alkatearen atxikimendua jaso zituen ekimen honek.



### ZUMAI A



### AUTO -ESKOLA

- \* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- \* Praktika eta azterketak Azpeltian
- \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018



20750 ZUMAIA



### TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57





## Odolki onenetakoak

Bai ba, Zumaian munduko odolkgile onenetakoa dugula ba! Horrela kontsideratu behar dugu behintzat Juanjo Larrañaga herriko harakina, Munduko Odolki Txapelketan finalista izan ondoren.

Txapelketan Euskal Herriko odolkgile onenak aurkeztu ziren, ia 80 partehartzaile gutzira. Azkenenari Beatriz Martin arabarrak irabazi zuen, baina Juanjok argi erakutsi zuen odolki ederrak dituela!

## Atxantatuk entzuleen saria jaso du *Euskadi Gaztea* maketa lehiaketan

Atxantatu musika talde gazte zumaiarrak, *Euskadi Gaztea* irrati kateak antolatzen duen maketa lehiaketan sari garrantzitsua irabazi du, entzuleen iritziz zumaiarrena izan baita maketarik onena.

Sari honek ate dexente ireki diezazkioke musika munduan, batetik lehiaketa honek prestigio handi xamarra duelako eta bestetik konpaktu batean beren bi kanta grabatzeko aukera emango zaielako.

Lehiaketa honen bitartez, musika talde asko egin dira ezagun. Orain dela urte batzuk Sorotan Bele



eta azkenaldian PiLT taldea ere arrakasta handia lortzen ari da lehiaketa hau irabazi ostean. Beraz, argi ikus daiteke arrakasta honen garrantzia.

Atxantatu lehiaketa honetara Euskal Herriko beste 300 talderekin batera aurkeztu da eta azkenean

epaimahai batek talde gutxi batzuk aukeratu ondoren, entzuleek talde zumaiarra aukeratu zuten gustokoentzat.

Orain aipatu bezala, pare bat abesti grabatuko dituzte konpaktu horretan lehiaketako beste talde saritu batzuekin batera.

**ZALLA**  
Taberna - Erretegia  
**PLATER KONBINATUAK**  
**OTARTEKOAK**  
**OILASKO ERREAK**  
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

*Paki*   
*Belardenda*  
**OSASUN NATURALA**  
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44


MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Eparantza, 13 - 1 Tfnos: 861160  
ZUMAIA





**Javier Carballo, Aitor Bayo eta Egiguren anaiak argazkilari zumaiarrak, Elgoibarko Kultur Etxean burutzen ari den argazki erakusketa batean parte hartzen ari dira. Eta ez da edonolakoa gainera. Erretratuak bakarrik biltzen dituen muestra honetan, Euskal Herriko argazkilari hobereenen lanak jasotzen dira. Ezkerreko argazki honetan Aito Bayoren erretrato bat ikus dezakegu.**

Azaroaren hasieran, **Zumaia eta Deba artean joango den trenbideko tunela inauguratu zuten.** Dakizuenetz, bide hori aspaldidanik itxita dago trenarentzat, berriztatze lanak direla-eta.

Dena den otsailerako espero da trenbide zati hori berriro irekitzea eta horrela zumaiarrok ere erraztasun handiagoa izango ditugu mugitzeko; adibidez Bilbora joateko aukera berreskuratuko baita. Bizkaiko hiriburura heltzeko gaur egun sekulako jira eta bueltak egin behar dira eta benetan ondo etorriko da gune hori berriro normalizatzea.



**Angeles Sorazuneko aldapan egiten ari diren lanak** direla eta, ibilgailuak ezin dira ohi bezala igaro. Adokin batzuk hondoratuta zeuden eta hau konpontzeko lur guztia altxatu dute. Arrazoi honegatik zonalde horretara ibilgailuz hurbildu nahi duenak San Jose kaletik joan beharko du. Kezka pixka bat bazegoen trafikoa oztopatu zitekeelakoan, baina itxura denez nahiko normal doa guztia. Beste egun batzutan horrela jarraituko du, gainera. Beraz, patxadaz hartu kontua.

**JZETA**  
orrastegia

Urumea 6  
Tlf: 862083

**ANA**  
ETXEKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza  
Tel. 861157

**Maiaur**  
Jolastokia



## Tito Mancilla, Orioko entrenatzaile berria «Ez nau beldurtzen Orion izan dezakedan presioak»

44 urteko zumaiar honi egokitu zaio Orion Jose Luis Korta karismatikoaren lekua hartzea. 25 urte baino gehiago arraun munduan, ez du beldurrik herri horretan ohituta dauden exijentzia mailari erantzuteko. «Esperientzia dexente daukat, beteranoa naiz kontu hauetan, eta beraz egoera berri honi aurre egiteko prest nago». Ea ba horrela den eta Kortaren izena lehenbailehen ahazten duten oriotarrek. Seinale ona litzateke hori, dudarik gabe.

**BESTE IZEN BATZUEK GEHIAGO AUKERA GEHIAGO ZUTELA ESPERO BAZEN ERE, AZKENEAN ZU IZANGO ZAITUGU KORTAREN LEKUA HARTUKO DUENA.**

Nik ez nuen pentsatzen 98an arraun munduan jarraituko nuenik. Ondarroa utzi nuen eta Orioko aukera sortu zitzaidan eta bueno, hor nago. Egia esan behar bada, nire aukera ez zen lehena; hasiera batean Zierbenako prestatzailea zegoen, Altxerri, *Luxia* Olasagasti ere bai, baina azkenean neregana jo dute.

**ZENBAT DENBORAKO FIRMATU DUZU?**

Ez dut ezer firmatu. Bi parteen arteko elkar ulertze bat izan da. Urtebete egongo naiz eta honen arabera, emaitzen arbera hitz egingo da etorkizunean.

**ZEIN IZANGO DA ZURE LANA?**

*Tito Zumaian eta Orion aritu izan da arraunean.*



Nere eginbeharra banko fijoan zentratuko da. Banku mugikorrean, nesketan eta beheko mailetan entrenatzaile bana izango da. Ni neu batel, trainerila eta traineruaz arduratuko naiz. Orion dagoen arraun guztia nik hartzea ia ezinezkoa litzateke. Banku fijoko arlo teknikoaz arduratuko naiz.

**BATZUENTZAT HARRIGARRI XAMARRA IZAN DA ZURE FITXAKETA, BATIK BAT ONDARROA AZKEN DENBORALDIAN USTE BAINO KAXKARRAGO IBILI DELAKO.**

Klub batek urte batean izen bat hartzen duenean, adituek hurrengo urtean maila berdina emango duela uste dute hasiera-

hasieratik, beste ezertxori begiratu gabe. Ondarroarekin hauxe gertatu da.

Markatutako helburu guztiak bete ditugu, kontuan hartuta zer nolako kuadrila geneukan, prestakizunetan nolako indarra azaltzen zuten (ergometroetan)... Hau jakinik, eta hemendik datu orokor eta zehatz batzuk aterata, badakizu ze maila emango duten mutilek gutxi-gorabehera.


Guk azken denboraldian pentsatzen genuena egin dugu. Gertatzen dena da, lehen esan bezala, orain bi urte Kontxan bostgarren geratu ondoren, jendeak pentsatzen zuen hortxe ibiliko

*Arkupe*  
Okindegia  
eta gosariak  
Kale nagusia, 2



**ERTZ informatika**

Orain  
Beheko Plazan!



Eusebio Gurrutxaga 6 Tel./Faxa: 143395





Titok bandera batzuk irabazi zituen 80ko hamarkadan (behean ezkerrean).

ginela aurten ere. Baina jende horrek ez daki laupabost arraunlarik Ondarroako trainerua utzi zutela, oso garrantzitsuak zirenak gainera. **KONTURATZEN AL ZARA KORTAREN ITZALAREKIN LAN EGIN BEHARKO DUZULA?**

Arraun munduan esperientzia handia daukat, beterano xamarra naiz jadanik eta herriaren presioak ez dit gehiegi eragingo. Presioa beti egongo da Orion, badakidalako han arrauna nola bizi den, bertan arraun egindakoa naiz. Orion markatzen den helburu bakarria irabaztea da; bigarren postuak ez du ezertarako balio.

Erabakia hartzerako orduan banekien nora nindoan, zeintzuk diren herritarren exijentziak, izan ere, han denak dira entrenatzaileak! Bakoitzak bere gustoko

arraunlariak ditu, traineruan nondik nora jo behar duen esaten dizute... Badakit nola funtzionatzen duten oriotarrek eta ez dit inolako beldurrik ematen.

**KORTAK LISTOIA OSO ALTU UTZI AL DU?**

Bai, baina berak izandako kuadrila oso ona izan da. Aurten orde laupabost baja ditugu eta hauen ordezkoeak beraiek bezain ondo edo hobeto egiten saiatuko gara. Badakigu Korta hoberena dela, baina ezin diogu begiratu horri bakarrik; hemen kontua da zer nolako kuadrila daukazu. Klub bat ez da gizon bakar bat, trainerua garbitzen duen pertsonatik hasi eta presidenteraino doa.

Hau horrela da eta kate hori apurtzen bada, berdin izango da munduko entrenatzaile hoberena

«**Jokatutako estropada guztiak irabaztea da nire ilusio handiena**»

edukitzea, alferrikakoa izango da. Garrantzitsuena kuadrila on bat, prestatzaile on bat, mediku on bat eta entrenatzaileak ere hutsik ez egitea da.

**KRITIKOEK DIOTENEZ, TALDEA BERRITZEN HASI BEHAR DU ORIOK, BETERANOEGIA DELA, ALEGIA.**

Badakigu kuadrila beteranoa daukagula, baina egingo zaizkien froga guztiei erantzun positiboa ematen badiete, mutil hoiek trainerurako prest daude. Hemen ez diogu karnetari begiratuko, ze adin duen eta horrelakorik. Balio badu trainerurako balio du; 18, 35 edo 42 urte izan berdin zait.

**ORION EGOTEA, FUTBOLEAN REAL MADRIL BATEAN EGOTEA BEZALA DA ZURETZAT?**

Ez da ahaztu behar Orion arraunean egindakoa naizela eta beti atsegin duzu hori bezalako talde handi batean egotea. Zumaiaiko urte hoberenetan arraunean ibili nintzen, urte onenetan bertako entrenatzailea izan nintzen.

Zumaia bere garaian klub handia izan zen, inbidiarik ez ziona. Hortik Ondarroara pasatu

**ENARA, S.L.**  
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15  
Tel. 862458



**KALARI**  
TABERNA

- Eguneroko bazkaria
- Pintxo eta bokatak
- Koadrilentzako menu bereziak
- Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea 16 Tel. 86 25 17



Juan Belmonte 6  
ZUMAIA

Tel. 860415



nintzen eta orain Oriora. Apaltasunez ibiltzea garrantzitsua den arren, denoi gustatuko litzaiguke talde handi batean izatea, eta kasu honetan punta-puntako talde batera noa, ilusio handiarekin gainera.


## ZUMAIARRA IZANDA, ZERGATIK EZ ZARA ZUMAIARREN ENTRENATZAILE?

Bere garaian ezadostasun batzuk izan nituen presidente-arekin; alderdi askotan ez geunden ados, niretzat garrantzitsuak ziren esparru batzutan. Taldea bideratzeko orduan, berak pentsaera bat zuen eta nik, berriz, beste bat. Ez ginen akordio batera iritsi eta norbait soberan zegoela ikusita, taldetik irtetzea erabaki nuen.

## NOLA IKUSTEN DUZU KANPOTIK ZUMAIAKO ARRAUN TALDEA?

Orokorrean orain momentu ona pasatzen ari dela dirudi. Azken bi, hiru urtetan ez da gehiegi progresatzen ari, nahiko estankatuta dago, baina garrantzitsuena da gazte talde handi bat dagoela bertan eta laguntzen ari zaiela, motibatzen, erakusten.

Hor egin behar du lan klub batek, gazte horiekin; hori egin ezean taldeak ez du etorkizunik izango. Ezin da egon zain batetik edo bestetik ekartzeko arraunlariak, ez. Arraunlariak herriko gazteak izan behar dira, behean formatutakoak. Taldeko jubenilek nagusiei bultzatu behar diete, bidetik atera.



*Titoren ustez gazteak arraunera erakartzea da garrantzikoena, ez banderak irabaztea.*

Arraunlariak kanpotik ekarriz urte gutxi batzutan funtziona dezake untiak, baina gero zer? Gero hil egingo da. Zumaia orain harrobia bultzatzen ari da eta horrela jarraituz gero, denboraldi dotore batzuk egiteko moduan izango dira.

## ETORKIZUNEAN IKUSTEN AL DUZU ZURE BURUA TELMO DEUNA ENTRENATZEN?

Ezin da jakin. Ni Zumaian bizi naiz, alaba bat ere arraunean

dabilkit bertan eta ez naiz zumaiarrak gaizki ibiltzea desiratzen duten horietakoa, ezta gutxiago ere.

Nire ilusioa Zumaia Berriz ere 87. urtean bezain ondo ikustea da, baina beti ere direktibak argi edukiz, oinarrizkoena gazteak erakartzea dela eta ez banderak irabaztea. Hori da politena, gazte pila bat egotea arraunaren inguruan, hau beteta emaitzak bere kabuz etorriko baitira. ■

**Antonio Etxabe**  
Gizonezkoen erropak




Zunbillo 4  
Tlf: 861407

**ROSI**  
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi 3-A  
Tlf. 861670



**ITSY-BITSY**  
SCHOOL OF ENGLISH  
Ingelesko klaseak maila guztietan  
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373



# Euskara Elkarteak sortzeko urratsak

Azken urteotan euskaltzaleon ametsa izan da Zumaian ere gure hizkuntzaren alde lan egingo lukeen elkarte bat edukitzea. Azkenean badirudi nahi hori gauzatzea lortuko dela eta dagoeneko 30 lagun inguru ari dira, 3 lantaldeetan banatuta, aurrez egin beharreko lanak egiten.



Hurrengo bilera hilaren 13an izango da, goizeko 11etan Forondako ganbaran.

Aldizkari honetatik lehenengo hilean luzatutako gonbidapenari erantzunez, 40 lagun inguru elkartziren Oxforden azaroaren 8an egindako bileran. Zenbait puntu eztabaidatu ondoren, egokiena kontu guzti hauek mahai baten inguruan aztertzea zela ikusi zen eta orduantxe egin zen bilera baterako deialdia.

Forondan izan zen elkarteari buruzko bigarren bilera, azaroaren 15ean hain zuzen ere. Bilera horretan lehenik eta behin aurrekoaren balorazioa egin zen, eta ondoren Zuzpertz taldearen erabakia jakinarazi zen: lehenengo egitura alde batera utzi eta talde honetako partaide izandakoak aurrerantzean euskara elkarte honetan hartuko dute parte.

Jarraian elkartearen izaera eta helburuei buruz hitz egin eta egin beharreko lanak hiru arlotan bana

zitezkeela ikusi zen. Ondorioz hiru lantalde antolatzea erabaki zen. Batetik, talde batek **euskararen normalizazioa** landuko du: ezagutza eta erabilera aztertuko ditu, euskararen presentzia neurtu eta honen inguruko ahalik eta informazio gehiena bildu. Bestetik, bigarren talde batek **kultur arloan** egoera nolakoa den aztertuko du: zenbat talde dauden, zer-nolako ekitaldiak antolatzen diren, eta abar. Azkenik, beste talde bat **elkartera antolatzeaz** arduratuko da: helburuak eta izaera finkatu, egitura eta funtzionamendua zehaztu, eman beharreko pausoak zein diren ikusi, eta abar.

Hil honen 13an, goizeko 11etan, beste bilera bat egingo da Forondako ganbaran. Bertan lantaldeek orain artean egindako lana aztertuko da eta aurrera begira

**Elkartera honek irekia eta zabala izan nahi duenez, adin eta pentsamolde guztietako jendea bildu da proiektu honen inguruan**

egin beharrekoari buruz zenbait erabaki ere hartuko dira seguruenak, izenari eta legeztautzeari buruzkoak esate baterako.

Elkartera honek irekia eta zabala izan nahi duenez, adin eta pentsamolde guztietako jendea bildu da proiektu honen inguruan, eta euskararen alde lan egiteko gogoak elkartzen ditu. Beraz, gai honek kezka edo interesik sortzen badizu, azaldu beldurrik gabe hurrengo bilerara eta lagundu egitasmo hau abian jartzen. ■

ILE APAINDEGIA

**Merca**  
**Urranga**

Etkezarreta, 19      20750 ZUMAIA  
Telefonoa: 862342

**TXALAPARTA**  
O P A R I A K

Angeles Sorazu 2  
Tel: 143089

**JEMAR**

**LOREDE NDA**  
LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK

Erribera 1 Tel. 860375





ANJEL  
OSA

Internet, horrek zer esan nahi du? Ez det hitz hori behin ere aitua. Noiz edo noiz telebisiotik edo radiotik aituko nun, baino ze esan nahi dun ez dakit.



IGONE  
EPELDE

Ikusi da Interneten bidez jendear artian harremanak egon direla, eta baldin negozio bat badaukazu eta horrekin erlazionatuta zerbaitei buruz jakin nahi baduzu, sartzen zera eta bertan aurkitzen duzu informazioa.



JOXE MARI  
MURILLO

Ordenadoreekin erlazionatutako zerbaitei dala badaikit, baina seguru-seguru ez nizuke esango. Ordenadorea badaukat baina aspaldikoa eta oraingoei buruz, berriz, gauza gutxi dakit.



MIRENTXU  
ZENDOIA

Badakit zertarako dan, baina ez det erabiltzen. Ez da ez nere lanbidea eta ezta nere afizioa ere. Egia esan ez zait interesatzen.



# Zer da Internet?



JOXE KRUZ  
ZEARRETA

Badakit linea bat dala, gauzak jakiteko ibiltzen dana, baina besteik ez dakit, ni idea. Nik ez det ibiltzen, anaiak ordea bai.



JUAN LUIS  
BLANCO

Labadora marka bat.



JESUS MARI  
MARTIN

Ez dakit ondo zer dan, baina bizitza konplikatzeke katxarron bat izango da, ordenadoreen modukoa.



JOSU  
EGAÑA

Internet edozein gairi buruz informazioa lortzeko tresna da.



## OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1  
20750 ZUMAIA Tel. 143057



Amertze

Erribera kalea 6  
Tel./Faxa: 861707



# Laia, euskal kultura harrotu nahi duen museoa

**Aurten, Zumaiak museo berri baten sorrera ezagutu du. Zumaiak, eta Euskal Herriak berak, Laia museo berritzailea baitu. Erakusketa hutsetik ihes egin nahi izan dute jabeek, euskal kulturaren eta produktuen trukerako gune bihurtzeko.**

**Museo honen proiektua duela bost urte jaio zen hiru lagunen kezka eta burutazioetatik. Orain museoa martxan dela, ez dute euren proiektua amaitutzat jotzeko asmorik. Laia zer den eta zer izatea nahi duten jakiteko, Asier Arriolarekin hitz egin dugu.**



*Santixon dago Laia, euskal produktuen museoa.*

Javier Pascual, Enrique Laborde eta Asier Arriola dira Laia museoaren sortzaileak. Duela bost urte hasi ziren kontu honi bueltak ematen, eta orain dela urtebete hartu zuten elkarte sortzeko erabakia. Urte honetan, materiala bildu eta kontaktuak egiten lan handia izan dute, baina Asierrek dioen bezala merezi izan du. «Guk ikusi genuen artisaunen aldetik behar hori ikusten zela, eta prest zeudela gurekin lanean jarduteko. Gure aldetik euskal kultura bultzatzeko kezka zegoenez, aurrera egin genuen».

Baina zer da Laia? zer aurki dezake bisitariak bertan? Asierrek azaldu digu. «Laia euskal produkturaren eta kulturaren museoa da, baina museo berezia. Museoa bera, hau da erakusketa, goikaldean dago. Bertan gure tradizioekin zerikusia duten gaiak lantzen dira: arrantza, txakolina, ardoa, gozogintza, oihaingintza... Baserriko mundua, bertako tresnak eta bizimoduak jaso nahi dira. Bestalde, behekaldean denda daukagu. Dendan euskal artisauek egindako lanak ditugu, baita kontsumorako produktuak ere,

Auto - Konponketak

**ELKAR**




**PEUGEOT**

Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201





**Museoak, dendak eta inguruneak osatuko dute etorkizunean Laiaren eskaintza, eta hiru atalek izango dute garrantzi bera**



*Baserriko bizimodua eta tresna zaharrak aurki ditzakegu Laian.*

denak kalitatezkoak. Denda, denetarik erosteko aukera izateaz gain, bisitariarentzat informazio gune izatea ere nahi dugu. Hau da, erosten duenari buruzko informazioa ere eman nahi zaie. Eta azkenik, Laiaren ingurunea daukagu. Azken atal hau da gutxien landu duguna, baina horretan gaude. Bisitariak ingurunea ezagutzeko aukera izango du etorkizunean. Hiru atalek izango dute garrantzi bera».

Planteamendu berritzailea du, beraz, museo honek. Berritzailea ez bakarrik horrelakorik ia ezagutzen ez delako, baita etengabe berritu eta hazteko asmoa dutelako ere. «Gure proiektua oso zabala da. Kontuan izan behar da euskal kulturaz ari garela hitz egiten, eta horrek dena hartzen du bere barnean. Beste kulturak ere ekarri nahi ditugu gainera».

Azken urteotan euskal produktuekiko zaletasuna piztu da nonbait, baina herrietako azokaz aparte, ez zegoen gaur arte produktu hauek bilduta aurkitzeko toki finko bat. Hau ere kontutan izan dute denda antolatzerakoan.

Proiektua aurrera eramateko izan dituzten laguntzei esker, Asierrek gauzak argi ditu. «Lagunek eta familiak emandako laguntza da gehien estimatzen dena. Hau pintatu behar dela, bestea egin... beti prest egon dira laguntzeko. Dirulaguntzei dagokienez, orain saiatuko gara administrazioei eskatzen.

Bagenekien zaila izango zela proiektua gauzatu aurretik ezer lortzea».

Zenbait gai lantzeko Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatu dute akordio bat, eta Urola-Kosta Udal Elkarteko Ingurugiro eskola-tailerreko talde bat arduratuko da ingurugiro arloa lantzeaz udaberri-uda aldera.

Bere ibilbidea hasi baino ez du egin Laiak, eta ideia eta asmo asko dituzte oraindik gauzatzeko. Berri pozgarria da, bai, gure kultura eta produktuak ezagutzera eman nahi dituen horrelako museo bat Zumaian bertan edukitzea. ■

**ITSASKI**  
**supermerkatua**



Urumea kalea z/g  
Zumaia

**JOSEBA OSSA**

**-ITZULPENAK-**

euskara-gaztelera-katalana  
ingelese-frantsesa

Tel.-Faxa: 148306

E-mail: bakun@encomix.es

**MAITE**  
**ILEAPAINDEGIA**

Berezitasuna ileen  
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278





# HIPEREROSKI

BIZKAIKO HIPERMERKATU BATEAN... 750 PEZTA DIRA ANDERENO...



ANDONI, HIPEREROSKI HONETAKO KUTXARIA DA NORBAIT NI BEGIRA DAGOELA USTE DUT



BERA DA, NIRE NOBIXAREN AMORDE ZITAL HORI!




BERE ALABA HIPERMERKATUKO JABE ABERATS ETA PSTERETSU HORREKIN EZKONTZEA NAHI DU

EZ NI BEZALAKO KUTXARI BATEKIN

EMAKUMĒ HORI DEABRUA BERA DA... LASAI...



BERE INTERESENTZAKO OZTOPO BAT NAIZ



DENDA BESTE DIMITSIO BATEKOA DIRUDI ETA BESTE EROSLEAK EZ DIRA KONTURATZEN



ONGIETORRIA INFERNURA!

HARRAPA EZAZUE, INFERNUKO PIZTIOK !!



GURDITXOEI BIZITZA EMAN DIE



NIRE ALABAREKIN EZKONTZEKO EUSKOBONOAK, AKZIOAK, KOTXEA ETA TELEFONO MOBILA BEHARKO DURU GUTXIENEZ!

HAU EROSKIKO APOKALIPSIA DA!



GURDITXO MADARI-KATUAK! LARANJA HAU EK HOBERENAK DIRA IRRISTATZEKO EZTA?





EZ DUZU IHES EGINGO. ZU EZ ZARA NIRE ALABARENTZAT IZANGO

BAINA MUTIL ZINTZOA ETA LANGILEA NAIZ!

EZ DUZU DIRURIK EZTA POTERERIK ERE !!

GAIXOA, JUA, JUA!

DENBORA GUTXI BARRU "HISTORIA" IZANGO ZARA!!

ATSO HAU BURUTIK JOTA DAGO!

INFERNUKO PUTZUETARA BOTAKO ZAITUGU!

PRODUKTU GUZTIAK OFERTAN DAUDELA KONTURATU ZARA?

NIRE ALABAREKIN DU ZUN ERLAZIO SENTIMENTAL HORI APURTUKO... EIN? OFERTAN??

Bai, BAINA BENETAZKO "BEHERAPENAK" 3 PISU BEHERAGO DIRA, SORGIN HALAKOA!

PTAF!

ZIRIA SARTU DIDAZU!

APARKALEKUA 3. EN SOLAIRUA

2. EN SOLAIRUA

1. GO SOLAIRUA

AURTEN, GURE BEHERAPENETAN %50-EKO DESKONTUA EGITEN DUGU. "LENCERIAN" ERE? AIBAAAA...

OFERTA

1977  
AMAIERA 2

Egilea: Amaia Ballesteros (Trapagaran)



# “Txapelketa hau mugarri bat izango da”

**NOLA IKUSI DUZU ZEURE BURUA TXAPELKETA HONETAN ZEHAR?**

Erregular ibili naizela iruditzen zait, gora-behera handirik gabe. Orain arteko bi saioetan nahiko maila onean aritu naiz, batez ere beste bertsolarien lanarekin alderatuz gero; izan ere, jendeak potoak eta horrelako akats ugari egin ditu, eta zenbait kasutan aurrez egindako lan ona pikutara joan da poto bat medio.

**POTOA GEHIEGI ZIGORTZEN DELA USTE AL DUZU?**

Batidanik zigortu izan da asko, akatsik larriena kontsideratu izan da; baina iruditzen zait badaudela larriagoak diren zenbait akats, hainbeste zigortzen ez direnak. Oro har nere ustez akatsak gehiegi zigortzen dira eta alderdi onak ez dira hainbeste baloratzen.

**TXAPELKETAN ERAKUTSI DUZUN ERREGULARTASUN HORRETAN ZERIKUSIRIK IZAN AL DU ORAIN ARTEKO PRESTAKETA LANAK?**

Bai, noski. Urte t'erdi inguru badaramakit nahiko zentratuta. Zenbait jarrera aldatu egin ditut erabat, eta bertsogintza barruragotik begiraten ari naiz azkenaldian. Eta guzti hau txapelketa prestatzeko oso lagungarria izan zaidala pentsatzen dut.

**BAKARKAKO LANETAN GUSTORAGO EDO LASAIAGO ARITZEN AL ZARA?**

Bi saioetan puntu asko atera ditut bakarkako ariketetan. Betidanik aritu izan naiz gustora, eta gaia ondo mamitzea gustatu izan zait. Nere ustez Zarautzen gehiago erantzun nion lagunari Beran baino; ofizioka estuago ibili nintzen Beran.



«Bertsolari» aldizkarietik hartutako argazkia / J. K. Ruiz

Gertaera historikoa da zumaiar bat maila honetako finalera iristea.

## “Bertsogintza barruragotik begiraten ari naiz aspaldian”

**OROKORREAN NOLA IKUSI DUZU AURTENGO TXAPELKETA NAGUSIA?**

Ondoriorik nabarmenena errelebu ziurtaturik dagoela izango litzateke. Txapelketa ziklo berri baten hasiera izango da, belaunaldi baten *sarrera ofiziala*. Izatez txapelketak injustuak dira zeharo, oso erlatiboa baita bertsolari baten lana egun bakar batean neurtzea. Finalen gaudenak ez gara onenak, ezta gutxiago ere.

**FINALERAKO PRESTAKETA BEREZIRIK EGINGO AL DUZU?**

Mentalizazioa behintzat ziurtaturik daukat, jendeak beste konturik ez baitit aipatzen. Eta bestela orain arteko prestaketarekin jarraituko dut, ariketa berriak eta bereziak ere egongo baitira finalean: hitz bat hamarreko txikian definitzea, ofizioka Iparragirreraren doinuaren, hitz batekin 9 puntuko osatzea... Errima asko landu dudan arloa izan da eta irakurtzen ere dexente aritu naiz. Azken hilabeteotan obsesiboa izan da txapelketaren kontua.

**ZERTAN ALDATUKO DU FINAL HONEK BERTSO-MUNDUAREKIKO DUZUN LOTURA?**



**GILANO**  
LIBURUDENDA

Paperdenda  
Aldizkariak  
Fotokopiak  
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe 7  
Tel: 14 31 91



**ZURICH**

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1  
Tel. Faxes. 860169



ARRAIN ETA  
MARISKOAK

**MARES**

BARAZKIAK  
ETA  
AURREZ  
PRESTATUTAKO  
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK



Fase berri bat markatuko dit, dudarik gabe. Inplikazio gehiago eskatuko dit, gehiago abestuko dut, eta abar. Orain artekoaren eta gerokoaren artean mugarri bat izango da txapelketa hau.

**NOLA IKUSTEN DITUZU FINALEAN ALBOAN IZANGO DITUZUN LAGUNAK?**

Bertsotan erraz egiten dutenak dira guztiak, lehendik ere maila bat erakutsitakoak. Lau gazte hor gaude eta homogeneotasun bat ikusten da,

lotzen gaituen hari bat. Finalean egotea nahiko sari badenez, egun horretaz disfrutatzen joango gara gazteok. Nagusiei, berriz, saioa asentatzea tokatuko zaie.

Edozer gauza gerta liteke, baina oso zaila izango da Egañari txapela kentzea. Hori bai, jendea Belodromora joan dadin animatu nahi nuke, lau urtetik behin bakarrik goza litekeen ikuskizuna baita hau, euskal kulturaren espresio gorena.



Egunkariak utzitako argazkia / J. Manterola

*Orain arteko saioetan Jonek oso kontzentratuta abestu du.*

### Abenduaren 14an egun handia

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala hilaren 14an jokatu da, Belodromoan, azken edizioetan ohi den bezala. Finalaurreko saioen ondoren, hiru bertsolari sailkatu dira zuzenean: **Egaña**, **Lizaso** eta **Mendizabal**. Puntuazioaren arabera, berriz, beste bost bertsolarik lortu dute finalerako txartela: **Iturriaga**, **Jon Maia**, **Iraza**, **Maialen Lujanbio** eta **Aritz Lopategik**. Aipagarria da emakume bat finalera iristen den lehen aldia dela aurtengo hau. Finalaurrekotara iristea lortu duen beste neska bat ere egon da: Oihane Enbeita.

Txapelketak bi saio izango ditu: goizeko saioa 11etan hasiko da eta arratsaldekoa, berriz, 4,30etan. Jendeari lanak erraztu nahian, Zumaiako Bertso Eskolak sarrera batzuk ekarri eta salgai jarri ditu **Inpernupe** eta **Zumea** tabernetan. Sarrera bakoitzak 2.500 pta balio du, eta goiz eta arratsaldeko saioetara joateko aukera ematen du. Animatu Jon animatzera!

## Kontzentrazioaren indarra

Berako saioan izan zinetenak edota telebistatik jarraitu zenutenak konturatuko zineten Jon Maia nola aritu zen: oso kontzentratuta, ia begiak itxi ere egin gabe. Finalerako txartela eman dio kontzentrazio honek, eta ondo merezitako saria izan da, zalantzarik gabe. Izan ere, kontuan hartu beharrekoa da puntuaziori dagokionez Jon guztira hirugarren postua eskuratu duela finalaurreko fasean, Egaña eta Iturriagaren atzetik, eta Lizaso eta Mendizabal baino lehen.

Jon Maiak Berako saio osoan zehar erakutsi zuen erregularitasuna aipagarria izan zen eta kartzelako gaian gailurra jo zuen; bigarren bertsoa amaitutakoan zain egon behar izan zuen hirugarrena hasteko, sekulako txalo zaparrada eskaini baitzion publikoak.

Doinutzat habanera goxoa harturik, lepoan txip bat jarri eta Piriniotan askatu duten hartzaren paperean, honela kantatu zuen bigarren bertsoa: *Piztia izatearren / jartzen digute isuna / gure bizimodua izan da / iluna eta lizuna / baso pagadi artean / sarri korrika jarduna / aske pasatu dut beti / berdin gaua ta eguna / baina orain jarri dute / barnean neurri astuna / ta ez da bide zuzena / piztiok daramaguna / behingoz konturatu bedi / gure gizaki laguna / txip txiki batean ez da / kabitzen askatasuna.*



**BASUSTA**  
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

**ZUMAIA MOTOR**

Santixo auzoa, 22  
Tel./Faxa: 143143

**Galdona**



Mendaro marinela, 1  
Juan Belmonte, 15

Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330



# Zaborrak murriztu... ...ala bertan ito

Kontsumoan murgildurik bizi den gizarte honetan, zaborrak gero eta arazo larriagoa ari dira bilakatzen. Ehundaka urte irauten duten plastikozko ontziak eta zorroak erabiltzen ditugu, minutu gutxi batzutan kontsumitzen ditugun produktuak biltzeko. Gero eta zabor gehiago ari gara sortzen, eta laister zaborra non sartu ere ez dugu jakingo.

Arazo honi erantzun bat eman nahirik, **Murriztu, Berrerabili** eta **Birziklatu** kontzeptuak zabaldu dira azken urteotan. Orain arte birziklapena izan da gehien bultzatu dena administrazioetatik, ziurrenik portaera aldaketa handiegirik eskatzen ez duelako. Azken finean, lehen zabor poltsa batean sartzen genuena, orain hiru edo lautan sartzea da kontua. Baina zabor kopurua ez da murrizten.

Murrizketak askoz ere ahalegin handiagoa eskatzen du. Gizarte osoaren inplikazioa behar du horrek, produktu egileetatik hasi eta kontsumitzailearenganaino iritsi arte. Balore aldaketarik gabe ezinekoa da hori. Zenbat eta paper, kartoi edo plastiko gehiagorekin bilduta egon produktu bat, ordua eta erakargarriagoa egiten zaigu, horrek alperrikako gastu bikoitza sortzen digula konturatu gabe. Zorro



*Harrigarria da urtebeteko epean zenbat zabor pilatzen den.*

liluragarri horiengatik produktua garestiagoa da, eta gero, zabor horiek birziklatzeko zaborren zerga igoko digute. Ez al da zentzuzkoagoa alperrikako zorro horiek hasieratik baztertzea?

Zentzuzkoagoa, merkeagoa eta ekologikoagoa. Orain, kontsumoaren gailurrera iritsiko garen urte sasoi honetan, saia zaitezte ahalik eta zorro gutxien dituzten produktuak erosten.

## Zenbat zabor sortzen dugu zumaiarrok?

Etxeko ZABOR ARRUNTA: **3.050.708 kilo.**

Hau da, **368,5 kg** biztanle bakoitzeko.

PAPERA: **138.302 kilo** (edukinontzi berezietan bildutakoa).

BEIRA: **132.479 kilo** (edukinontzi berezietan bildutakoa).

Datu hauek 1996koak dira. Azken urteotako eboluzioa aztertuz gero, zumaiar bakoitza eguneko kilo bat baino gutxiago sortzetik, kilo hau gainditzera pasa da.



**inportaturiko erropa  
eta artisautza**

Basadi 3 Zumaia


**TXOKOA**



T  
B  
E  
R  
N  
A

*Artadi  
Auzoa*

86 21 89



**AIZPURUA**

L  
I  
B  
R  
U  
D  
E  
N  
D  
O  
P  
A  
R  
I  
A  
K

Aita-Mari Auzategia, 17  
Telefonoa: 86 1569  
20750 ZUMAILA



# tabernetako abentureroa

Aaaargh! Dios! Gaur ingo detelako, bestela ze koñotako garbituko nun ba pito punta? Ras, ras, ras! Listo, aber nola gelditu dan? Perfeto, garbi-garbiya. Ze neskak ez du ba nahiko hau bere ahuan sartu. Ala uazen. Al atake!

Taberna honetan neska guapa asko eoten omen dia. Hi, xeme, atea yak patxaran bat. Aber aber, han, han, han daon harekin seuru zoze lortze detela. Ei, utzi yazu pasatzen... Ai, barkatu... Emm, ein, aizu urrutitik ikusi dizut eta... ingo al deu? Ze, zeatik haste zea parrez? Ez, e naiz ai brometan... Bale, bale, etzea horrela jarri. Kauenlaletxe! Frigida, maske frigida! Hi, majo atea yak beste patxaran bat... Ai la letxe, horko hori beira dakat. Arpeiz ez da marabilla bat baña... Kontxo, honeaka dator gañea. Klaro, ze guapua naizen kontuau data. Ze, ze naizu? Ah, kentzeko,

nola ez ba... Arpeiz ez baño, hoidek ipurdiya. Ea, diximuluan eskua luzau ta... Blast! Baña, zeatik jo diazu? Ze, nik eskua sartu zuri, dekebas!... Jo, honek eman dit masallekua... eskerrak uain enterau naizen, bestela oyan ze ingo ote zian. Gañea ez dit ba patxarana lurra bota... Hi, txikito, atea beste patxaran

bat... eta hemen ondoko neska eder honentzako beak nahi duna. Ze, porkulota juteko? Bale bale. Hobe izango da tabernaz aldatzia ze hauek danak seuru tortillerak diala.

Bueno, hemengo honek ez du pinta txarra, ganau ona dao behintzat. Hi, patxaran bat. Ai la ostia, bakalau musika honekin neska danak muitzen hasten dia. Jode, nola moitzen zaizkion titiyak neska horri. Horrek soluzionau behar dit gau dana. Atzetik hurreau eta esaten dan bezela "el abrasso del oso" bat ingo diyot... Ixil-ixilik jun eta... yepa! Jode, hauek txuk titiyak. Eh! Ze? Aaaargh! Nere potruak! Aaaaaaaargh! Putoya! Aaaaargh! Jode, ni banijua etxea.

Bueno, gaur ze ibiliko det, pleiboya edo penjausa. Bueno berdin da... txaka, txaka, txaka... Aaa! aaaaa! aaaaaaaaaaaaa! Listo, zetako bihar dia neskak eskuak berdin baliyo badu. ■



*Jesuskoa*  
*Faletxea*

*Año 86 17 39 • C/ikita Zumaiia*

**xirula**

ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA  
Tel. 861705

EGUZKI  
**PUB**

KOKTEL  
BEREZIAK

Basadi Auzategia  
9-A 2-B  
ZUMAIA

AHOLKULARITZA  
**JRURE**

GESTORIA

Erribera,17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

**AUTOS ZUMAIA**

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45  
Tel. 861485

English School  
**Harvest**

Musika Eskolaren aurrean!

San Jose 11 bis Tel. 143334





ADI! Errege bueltan hainbeste festa eta zubi dagoenez, erabat ezinezkoa da aldizkaria urtarrilaren hasieran ateratzea. Beraz, **hilaren 16tik aurrera** aurkituko duzu betiko tokietan salgai.

**Urtarrileko Baleikek, 1997ko URTEKARIAz gain, nobedade bat izango du: DISEINU BERRIA!**

Aldizkaria + Urtekaria 200 pta

## 1998rako harpidetzak

Gure aldizkaria hilero etxean goxo-goxo jaso nahi baduzu, nahikoa duzu paper batean zure datuak idatzi eta buzoian edota Forondan uztea. Hemendik aurrera kobraketa banku bidez egingo dugunez, behar-beharrezkoa dugu kontu zenbaki osoa jakitea (20 zenbaki). Titularra beste norbait izango balitz, zehaztea komeni da; eta ahal bada kontua Kutxa edota Euskadiko Kutxakoa izan dadila.

Izen-abizenak  
Helbidea  
Telefonoa  
Kontu zenbakia (20 digitu)  
eta titularraren izena

Tarifak ez dira aldatu:

**Bertakoek**  
1.000 pta  
**Kanpokoek**  
1.500 pta

### Barrenetxea garraioak

Garraio astunak

Jadarre 18, 2-D  
Tel. 861449



Erribera kalea, 2  
Telefonoa: 861125  
ZUMAIA

**Itzurun**  
ATEAK

Itzurun zuhaitzbidea 2  
Tel: 861565  
143446  
ZUMAIA

**IONCE**

**JOXE  
MANUEL**

Eguberri  
zorionsuak!

Tel: 862347-861001



*ilarfi*  
*kontzertuz eta musikaz betai*

**ALAI AUZATEGIA, 2 - TLF: 143324**



# 42 zumaiarrek bukatu zuten Behobia-Donostia

Batzuek lehen aldiz korritzen zuten proba hau eta helmugara iristea izan zen beren helburu bakarra. Beste batzuk berriz, norberaren marka pertsonala hobetzera joan ziren. Azkenaldian gertatzen ari den bezala, Mariano Sanchez de la Flor izan dugu zumaiar hoberena. Aipagarria da iazkoarekin alderatuz, zumaiar gehiago izan direla eta denbora hobeak egin dituztela. Hona hemen parte hartu zuten zumaiarren zerrenda:

## SAILKAPENA

25	Mariano Sanchez	1:07:31
125	Juan Manuel Lopez	1:12:25
200	Txetxu Tamayo	1:14:08
211	Jaime Osa	1:14:28
309	Erlantz Esteibar	1:16:19
312	Musin Azkriek	1:16:23
341	Peio Santamaria	1:16:45
359	J. Ramon Martinez	1:16:59
384	Jon Ulazia	1:17:17
385	Xabier Irureta	1:17:18
546	Gracian Galarraga	1:18:59
668	J. Maria Hidalgo	1:20:10
818	Martxelo Santamaria	1:21:23
857	J. Ignacio Alkorta	1:21:42
937	Jesus Ibarguren	1:22:16
1162	Iñaki Aizpurua	1:23:43
1409	Luis Osa	1:25:13
1449	Joseba Iribar	1:25:30
1473	Karlos Del Pilar	1:25:35
1557	Egoitz Amilibia	1:26:09
1760	Xabier Elizalde	1:27:21
1790	Julian Florez	1:27:30
1865	David Gonzalez	1:27:52
2190	Carlos Moreno	1:29:39
2231	Xabier Azkue	1:29:49
2487	Iñigo Alkorta	1:31:20
2991	Mikel Yeregui	1:33:46
2994	Jose Luis Aizpurua	1:33:46
3361	Andres Esnal	1:35:22
5337	J. Migel Aramendi	1:43:31
5607	Iñigo Alday	1:44:39
5675	Iñigo Agirre	1:44:55
5676	Iñaki Vita	1:44:55
5743	Pedro Etxabe	1:45:14
6376	Imanol Cortes	1:48:01



Juan Manuel Lopez,  
bigarren zumaiarra (ezk.).

6382	Abicio Blazquez	1:48:03
6823	Jose Luis Leon	1:49:54
7162	Jon Iñaki Izpizua	1:51:25
7933	Johanna Garcia	1:55:54
7938	Abundio Garcia	1:55:55
8128	Ainhoa Azkarate	1:57:19
8129	Ricardo Martin	1:57:20
8450	Jon Arano	1:59:49
8705	Igor Uranga	2:02:08
8969	Ernesto Grijalba	2:05:27
8972	Ines Aseginolaza	2:05:29
9488	Borja Aizpurua	2:25:32



Badoa aurrera poliki-poliki Zumaiako plaierotako txapelketa. Orain arteakoa ikusirik ezin dezakegu esan ustekabeko handiegirik dagoenik. Gesem, Axier Kirolak eta Hiru Ezkur agertzen zaizkigu indartsuen. eta Siete Mares taldea, berriz, ahulen, partidu gehientsuenetan gol sorta handia jaso baitu.

## Alberdi

GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6  
Tlf: 861155



BASADI-RUSTATEGUIA, 4-A  
ZUMAITZ  
TEL. 861061

HARATEGIA  
URDATEGIA

ENTER INFORMATIKA  
BALTASAR DE ETXABE z/g  
ZUMAI  
☎: 86.11.75  
☎: 86.05.50

ORDENAGAILU SALMENTA  
SERBITZU TEKNIKOA  
HARDWARE ETA  
SOFTWARE  
INFORMATIKAKO KURTZOAK





# Karatea, fama txarra duen kirola

Jendearentzat ezezagun xamarra den kirol hau Zumaian praktikatzeko aukera dago oran dela bost urtetik, eta Andoni Moreno irakasleak azaldu duen bezala, «jendeak kirol honekiko duen irudia ez da zuzena», izan ere agresibitatearekin lotzen baitugu, defentsa eta autokontrolerako izanik.

Gutxi-gorabehera karatea zer den guztiok jakingo dugu. Beno, zer den baino gehiago nola praktikatzen den noiz edo noiz ikusi izan dugu, batik bat telebistako pelikuletan.

Kung-Furen filmeek arrakasta handia izan zuten garai batean eta hauen eraginez bereziki, karatea edo Andoni Morenok zuzendu digun bezala, Karate Do-a, kirol agresibo edo erasokorarekin erlazionatu izan da. Hala ere, jendeak duen irudi hau okerra da.

Defentsa pertsonalerako balio du eta beraz, pelikuletan ikusten denak eta karatearen errealitateak ez dute zerikusirik.

## Jatorria Indian

Kirol hau Kristo aurreko garaitik dator. Indiatik, Txinara pasatu zen eta han mugimendu batzuk izan ondoren, Japoniara igaro zen. Japonian garatu zen benetako karatea.



Karatea kirol bat baino gehiago dela azaldu digu Andoni Morenok

Karate hitzeko silabek esanahi ezberdina dute. Kara-k hutsa esanahi du, Te-k eskua eta Do-k bidea. Karate Do hitz guztiak batera, «jarraitu beharreko bidea».

Zumaian kirol hau orain dela bost urte hasi zen praktikatzen. Hasiera-hasieratik Andoni Moreno zumaiarra dugu preparatzailea.

Berak adierazi duenez, «orokorrean maila dexente ona du Zumaiako jendeak. Gertatzen dena da, haurrak batez ere dezepzionatu egiten direla, beharbada ez dutelako nahi adina irabazten. Baina hau normala da».

Morenoren hitzetan, «karatea kirol bat baino gehiago da. Karatea praktikatuz hurrek etekin handiak lor ditzakete, horien artean koordinazio fisikoa eta gorputzaren garapena». Kirol honetan garrantzitsuena, nork bere burua

etengabe hobetzen jarritzea da eta ez borroka bat galtzea edo irabaztea.

Honek gainera bizitzako esparru guztietarako balio du. Errespetua, esfortzua, irabazi edo galdu, karate praktikatzaileak bere bizitza normalean erabili ditzakeen kontzeptuak dira; eta hauei gogor ekin behar die irabazteko eta etorkizunean aurkeztzen zaizkion oztopo guztiak gainditzeko.

Andoni Morenok gaineratu duenez, «karatearen bitartez, inteligentzia garatzen da, segurtasuna, konfiantza, eta autokontrola eskaintzen dit eta gorputza fisikoki ere asko hobetzen du».

Gimnasioetan kirol hau irakasten denean, helburua pertsona hezitzea da eta bizitzarekiko dituen



**MENDI - ONDO**  
ELEKTRIZITATEA

Axular 14  
20750 ZUMAJAIA

Telefonok:  
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
  - \* Banakoak
  - \* Kolektiboak
  - \* Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

**AZKUE**  
**Taberna-Jatetxea**

Eguneko menua Oheak

Basadi 9 Tel.: 861780





Asko dira Zumaian karatean aritzen direnak, haurrak bereziki.

jarrerak garatzea, ez txapeldunak egitea. Zentzu honetan, karateko klaseetan jokoek garrantzi handia dute kirol instrukzioaren aldean.

Karateak, Morenoren iritziz, «bakoitzak daukan barne energia hori askatzen laguntzen du, desahogatu egiten zara, aske sentitu». Horregatik, eta hau guk geuk konprobatu ahal izan dugu, izugarritzko oihuk egiten dituzte entrenamenduetan bertan.

Kirol hau ezagutzen ez duena harrিতuta geratuko litzateke entrenamenduak nolakoak diren ikusita: haur eta helduak nork bere

saioretan marru ikaragarriak botatzen, eta norbaitek bajuegi eginez gero, hor du irakaslea errietatxo egiten hori zuzendu eta altuago egiteko esaten.

Zumaian haur dexente dira karate egiten dabilzanak; helduak baino gehiago dira, baina dena den, helduak ere asko animatzen dira. Hala ere, Morenok aipatu duenez, «emakumeak dira oraindik kirol hau praktikatzera gehiegi ausartzen ez direnak. Ez dakit zergatik den hau, baina horrela da Zumaian».

Hemendik kanpo emakume asko aritzen dira karatean.

Zumaiko karatekak konpetizioan aritzen dira eta lehen esan bezala, ondo xamar gainera. Emaitza onak lortzen ari dira bai haur eta bai helduak ere. Honetaz gain, erakustaldiak ere asko egiten dituzte.

**Karatea kirol bat baino gehiago da, bizitzeko era bat**

Beraz, esan dezakegu Karatea Zumaian nahiko ondo errotuta dagoela, eta etorkizunari baikortasunez begiratzen dio Andoni Morenok.

Bukatzeko gerrikoen kontua azaltzeko eskatu diogu irakasleari. Hasi berria gerriko zuriarekin hasten da, gero aurrera doan bezala, kolorea aldatuz doa, duen mailaren adierazle. Zuria, horia, gorria, marroia eta azkenik beltza.

Beltza lortzeko, maisuaren gerrikoa lortzeko, Espainiako federakuntzak jartzen duen epaimahai baten aurrean azterketa egin eta gainditu behar izaten da. ■

**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

**GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA

**ARGIDENDA** Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

**Izaga 1, behea**  
Tel.-Faxa: 143402

**Tailerra: Estazioko kalea 24**  
Tel. mugikorra: 908-143409

**SOLOZABAL AUTOESKOLA**

Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

**P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416**

**Loitz**

- \*Eskola eta bulegorako materiala
- \*Enkoadernazioak
- \*Fax publikoa
- \*Aldizkari eta opariak

**Erribera 4**  
Tel./Fax: 143422



**Zumaia 650.  
urteurrena**

Abenduak 12, ostirala  
arratsaldeko 7etan

Forondan

**Jose Javier Granja  
Pascualen** hitzaldia.  
*Hezkuntza Zumaian:*  
*Julene Azpeitia*

**Ludoteka**

Abenduak 13 eta 20  
Gabonetako eskulanak

**Kontzertua**

Abenduak 13, larunbata

Arratsaldeko 5etan

Parrokian

Haurren Abesbatzen saioa

**Legazpi** eta **Zegamako**  
abiesbatzak eta Zumaiaiko

**San Pedro Txiki** eta  
**Txikienak**

**Ipuin kontaketa**

Abenduak 18, osteguna

Forondan

**Itziar Zubizarretaren**  
eskutik

**Santo Tomas Festa**

Abenduak 19, ostirala  
Zumaiaiko ikastetxeek  
antolatuta

**Ikusentzunezkoa**

Abenduak 19, ostirala  
Forondan

**Javier Fernandez**  
eskutik,  
"Islandia"

**Natura**

Abenduak 25tik  
urtarrilaren 6a bitartean  
Oxforden

**Zumaiaiko Natur  
Ihardunaldiak.**

**Gaia: ugaztunak**



**Trikitixa**

Abenduak 20, larunbata  
gaueko 10etan  
Aita Mari zinean  
ETBk antolatuta

**Trikitixa Txapelketaren  
Finalerdiak**

**Santo Tomas Eguna**

Abenduak 21, igandea  
Arratsaldeko 6etatik 9etara  
Trikitilariak kalean zehar



**Bertsoak**

Abenduak 26, ostirala

Gaueko 10etan

Aita Mari zinean

**Bertsolari Gazteen**

saioa: Mendiluze, Agirre,  
Zelaia, Sarriegi eta  
Enbeita

**Huntza, o.k.**



DISEINUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ, ZUHAIKKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

SERIGRAFIA

**KUKUTZ**

baltasar  
etxabe 7 ZUMAIA

Telf:  
860569



**Azkue Autoak**

Estazioko kalea, 19  
20750 ZUMAIA

Telefonoa: 861433  
Fax: 861067




### Gabon eguna

Abenduak 24, astezkena  
**Olentzero abesbatzak**  
**Gabon korua**  
**Gabonetako abestien txapelketa**  
**Belen biziaren ibilbidea**



### Antzerkia

Abenduak 28, igandea  
 Eguerdiko 12etan  
 Aita Mari zinean  
**Gorakada** antzerki taldearen saioa (haurrentzat)  
 "Pinotxo 2000"



### Magia Tailerra

Abenduak 29 eta 30,  
 14 urtetik gorako gazteentzat.  
 Informazioa eta izen-ematea Forondan.  
 Tel. 861056

### Erregeak

Urtarrilak 4, igandea  
 Beheko plazan  
 Hurrek Erregeei idatzitako eskutitzen bilketa

### Eguberri eguneko Kontzertua

Abenduak 25, osteguna  
 Eguerdiko 12,30etan  
 Aita Mari zinean  
**Udal Musika Bandaren kontzertua**

### Gugenheim ikustera

Abenduak 27, larunbata  
 Arte Taldeak antolatuta.  
 Autobusa eta sarrera: 1.000 pta  
 Izen-ematea Forondan

### Errege zamalkada

Urtarrilak 5, astelehena  
 Arratsaldean  
 Herriko kaleetan zehar

**ERROTA**  
**ERROTA**  
**OPIL - OKINDEGIA**

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
 Erribera 2 - Tfno. 14 30 01  
 ZUMAIA

**JUSTA TABERNA**  
**EGUNEROKO BAZKARIAK**



Erribera kalea 20

**expert**  
**ELEKTROGAILUAK**  
 Mertxe Aizpurua

**Etxezarreta 6**  
**Tel. 861078 ZUMAIA**

  
**goofy**  
**HAUR JANTZIAK**  
 Amaia plaza, z/g  
 Telef. 860959  
 ZUMAIA

**agustin**  
**HARATEGIA**  
**URDAITEGIA**

Itzurun Zubaitz-bidea, 1  
 20750 ZUMAIA      Telefonoa: 862430

julio curiel  
**GF**  
 PELUJERO

**GIZONEZKOENTZAT**  
**ILEAPAINDEGIA**

Erribera kalea 23



# ZINE FORUM

## udazkeneko zikloa

abenduaren 18an  
**DEAD MAN** (1995)  
 Zuz: Jim Jarmusch  
 Akt: Johnny Depp, Gary Farmer, John Hurt, Robert Mitchum



1992an Clint Eastwoodek *Sin Perdón* ikaragarriarekin *westerna* berriz ere ohore guztiz pantailara eraman zuenetik, hainbat zuzendari interesgarri hurreratu dira Amerikako mendebalde urruneko mitoak kontatzera: Lawrence Kasdan *Wyatt Earpekin*, Walter Hill *Geronimo* eta *Wild Billekin*... Hala ere inork ez zuen espero Jim Jarmusch bezalako zuzendari batek, 80eko hamarkadako zuzendari independente garrantzitsuenak (*Mystery Train*, *Night on Earth*), beti ere bere zinea hirietan kokatu duenak, *westerna* ikutuko zuenik. Hala ere, bere lan guztietan gertatzen den bezala, ezin da esan ohizko "bakeroen" filme bat egin duenik.

*Dead Man*ek, XIX. mendearen bigarren erdian Clevelandeko kontulari batek, William Blake-k (Johnny Depp), Amerikako mendebaldeko mugara egindako bidaia kontatzen du. Bertan, zauritua izan ondoren, bere pentsakera eta bizitza aldatzen da, hiltzaile bihurtzen baita.

Jarmusch-en filme askotan gertatu ohi den bezala, aktore bikain batzuek gain, zuri-beltzeko fotografia mirezgarria ikus daiteke, Wim Wenders eta Peter Bogdanovich-ekin lan egin duen Robby Müller bikainaren eskutik. Bestetik, esan daiteke filme hau izan dela Robert Mitchum haundiaren azken lana.

*Dead Man*, Jim Jarmusch interesgarriaren azken pelikula, ziurraski bere lanik onena, eta maixu-lantzat har daitekena.

## IRAKURKETARAKO AUKERAK



Euskaraz

Telefono kaiolatua  
 Kilkirra eta roulottea  
 Erretiradako trena  
 Karramarroaren aztarna  
 Ostegunak


Harkaitz Cano  
 Joxemari Iturralde  
 Martin Ugalde  
 Hasier Etxeberria  
 Jon Arretxe



Gaztelera

Limpieza de sangre  
 La tempestad  
 Mi corazón que baila con espigas  
 La forja de un ladrón  
 Romance para la mano diestra...


A. Perez Réverte  
 Manuel de Prada  
 Carmen Rigalt  
 Francisco Umbral  
 J.A. Payno



Haurrak/Gaztetxoak

Samovar  
 Iratxoak  
 Sakoneko izua  
 Todo marcha sobre ruedas

Maximo Gorki  
 Juan Farias  
 R.L. Stine  
 Graham Greene



# NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

## GURE TXOKOA TABERNA

Kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia



# Ghetto Sound System

Musikarekiko zaletasunak (edo gaixotasunak ote?) ez du mugarik, eta zaletasun edo maitasun horrek eraginda dator **GHETTO SOUND SYSTEM**. Hernanin landuta, musika beltza atsegin dutenei zuzendutakoa da, *Reggaea, Junglea, Dance, Hip-Hopa* eta erritmo beroei eskaintzen baitizkie bere orrialdeak.

Lehengo alea udaberrian plazaratu zen, eta bertan oinarrizko azalpen basiko aurki daitezke. Jungle erritmo txoro eta bizi horien sorreraz hitz egiten digu: nola jaio zen, estilo desberdinak, kantari ezagunenak... *Reggaearen* historia labur bat ere badago, eta genero honek eman duen I JAHMAN LEVY (Sound Systemen maitatuena) artista ezagun honentzat artikulu berezi bat gorde dute. Sustraietatik izenpean datorren artikulua *Kalamudia*, marihuana legeztatzearen alde lanean ari den elkarteari eskainitakoa da, eta beraien helburuak zeintzuk

diren argi eta garbi azaltzen digute: **LEGALIZE IT!!** Betslade, disko mailan ere badatoz gomendio batzuk.

Dena den, **GHETTO SOUND SYSTEM**en altxorrik preziatuena bere zinta katalogoa da. Katalogo hau diru gutxi dutenentzat zuzendutakoa da, hau da gehienentzat. Diskoak, CDak eta zinta originalak zeharo garestiak direnez, irtenbide polit bat

eskaintzen digute: katalogo honetan 300 diskotik gora aurkituko dituzu, eta edozein grabatzeko aukera duzu. Zintak 90 minutukoak dira eta kasu gehienetan bi disko sartzen dira. Nola eskatu? Ba oso erraza: beheko helbide honetara idatziz eta zinta bakoitzeko 500 pta-ko giro postala eginez.

188 posta kutxa.

20120 HERNANI (Gipuzkoa).

Oraindik sorpresa gehiago ere badaude, ordea, **GHETTO SOUND SYSTEM** en ale bakoitzak bertan aipatzen diren talde edo kantarien kantuz osaturiko zinta bat baitakar, eta biak, fanzinea eta zintak 500 pta besterik ez dute balio. Ikusten duzuenez, honekin ez da inor aberastuko.

Hauek eskuratzeko bi aukera dituzu Zumaian: lehena eman dizuegun helbidera idatziz; eta bigarrena, eta errezagoa, Ihintza taberna eskatuz.

**ghetto**  
SOUND SYSTEM

- JUNGLE
- R.A.W.
- DISKAK
- REGGAE
- HIP HOP
- DUB
- DANCE
- LEGALIZE IT !!!

97ko UDABERRIA 1. ALEA. 500 pta. + ZINTA

● IJAHMAN LEVY

**IHINTZA**  
taberna

Tlf: 860472  
*Omega y Gasset, 3*

**EGOKI**

Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

◇ **ARGIA** ◇

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93  
ZUMAIA





# Motxian hi!

**Zein: Sebastian Leiza**  
**Zer: Nork daki**  
**Nola: Xebax**

- ZER EGINGO ZENUKE LOTERIA TOKATUZ GERO?
- DANA FUNDIU.
- ARRAUNA ZEIN KASUTAN UTZIKO ZENUKE? NAZKAUTAKUAN.
- ZURE ABESLARI GUSTOKOENA? GUSTOKOENA EZ DAUKAT, GEHIEGI DAUZKAT.
- NOLA PUNTUATUKO ZENITUZKE ZEROTIK LAURA BIARTEAN?
- LANA: 3
- ARRAUNA: 2
- MAITASUNA: 4
- PARRANDA: 2
- ZER EGINGO ZENUKE OHE TXIKITXO BATEAN? SIESTA TXIKI BAT.
- ZERK EMATEN DIZU NAZKA ? FALTSUKERIAK.
- NOLA DESKRIBATUKO ZENUKE ZEURE BURUA ESALDI BATEAN?
- MUNDUA ALDATU NAHI ETA HORRETAKO POTERERIK EZ DUNA.
- ETORKIZUNERAKO PLANIK BAI?
- EZ. ETORKIZUNA GAURKO EGUNA DA.
- ZEIN DA BOTA DIZUTEN PIROPORIK POLITENA? LA OSTIA HAIZ!
- ZER FALTA DA ZUMAIAN?
- GAZTE MUGIMENDU ZABAL BAT.
- ETA ZER DAGO SOBERAN BI HANKAKO TXERRIAK.

## OHARRAK

"Gomexak" taldekooi tuba lapurtu digute. Inork horren berririk izanez gero, edo guri uzteko moduko tuba bat baldin badauka, deitu 862400 telefonora.

Erreklamo-Publizitatea  
Enpresa eta bestelako taldeentzat iragarki gaiak eskeintzen ditugu.  
Serigrafia-Publizitatea.  
Baltasar Etxabe 7. 860569.

Abenduan dendaz aldatuko dugu.  
Eusebio Gurrutxaga Plazako 6.  
zenbakian aurkituko gaituzu.  
ERTZ INFORMATIKA

## AGURRAK

Txanton,  
matxakau bat?

Mutil gazte bat ikusi nuen korrika erdi itota pena galanta nik hartu nuen benetan zegoen jota kalimotxoa ezin probatu Rosslik laister bankarrota bukatu dira beretzat aurten Ilargi eta Errota PERI aneko jarri ezkerro Kontxako rekorra bota

Behobia-Donostian parte hartu zenuten zumaiarroi: Gabonetako loteriako zenbakia honako hau da: **07376** Zorte on!

Gorka, Txitarroko matxakao denak eran dituk, mozkor hoiek

Ze bombi, kamixeta hegalaria itzuli al da?

Sesma, Sesma hire lorua kaiola berri batean dago

Matri, palaz jokatzeko danborra jeitsi beharko dek, ezta?

Miri, zer moduzko tratua ematen dizu Sinéad txikiak? Espero lan gehiegi ez ematea. ZORIONAK!!!!

# CARLIN

OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA  
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK  
INKJET ORIGINALAK; HP, EPSON...

Fotokopiak **5** pezetan

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453

## BIZKOR

FOTOKOPIAK



- Enkuadernaketak
- Platifikatzeak
- Fax publikoa
- Bulegoko materiala

Basadi 14, behea - Tlf: 145120



### ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea  
20750 ZUMAIA  
Tel. 143310

LARRIALDIAK  
-24 orduetan  
-Zeure etxean

Tel. mugikorra: 908-775508



# Juanjo Larrañaga



HARATEGIA • URDAITEGIA



**Geuk**  
hazten dugu  
bertako ganadua

**Geuk**  
prestatzen dugu  
txarkuteria



**Geuk** eskaintzen dizkizugu  
preziorik onenak  
kalitaterik hoberenarekin

**GURE ODOLKIAK, GURE LAN  
ETA KALITATEAREN EMAITZA!**

Basadi auzategia, 4-A ZUMAIA Tel. 86 20 81





KOSTA GAS



ZERBITZU OFIZIALA

Etxezarreta, 6  
ZUMAIA

Tel. 86 10 78

## KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

- Butano
- Propano
- Gas Naturala



# Lehiaketa Goxoa



Aurreko  
hilabetean  
tarta eder  
bat irabazi  
zuen

**JOSU GURRUTXAGA izan zen.  
Erantzun zuzena  
Imanol Cortes zen.**

Ba al dakizue non  
zegoen argazkian  
ikusten den denda?  
Ez lorik hartu eta  
bidali lehenbailehen  
erantzuna.

Erantzuna  
asmatzen  
duzuenon  
artean TXAPARTEGI  
GOZOTEGIAk emandako  
tarta zoragarri bat zozketatuko dugu.  
Parte hartzeko nahikoa  
duzu erantzuna Txapartegin bertan  
edota gure buzoian uztea abenduaren  
26a baino lehen. Zorte on!

